

PERTSONAIA

AITOR GOROSABEL

«Zilegi iruditzen zait debalde jotzea, baina dirua eskatzea ere bai»

“Libreeeeeeee izateko haiz jaioa...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



Gitarraren atzean baino lehen jarri zinen piano-aren gibelean.

Etxeko pasilloan zegoenez, bertatik pasatzen nintzenentzera tentatzen ninduen. Aita egoki moldatzen zen eta jolasean hasterako *Binbili Bonbolo* jotzen nuen atzamar bakarrarekin. Gogoratzen dut, 5 urte baino gutxiagorekin, atzamar bakarreko abiaduran, melodiak jotzen nituela. Gitarrarekin ordea, nerabezaroan egin nuen topo. 13-14 urterekin gure arreba zaharrenari akorde sinpleak ikusi eta “Guk euskaraz...” eta abarrekin saiatzen nintzen. Geroxeago, Norton anaiari kanta punkyak entzuten nizekion eta akorde punkyeta egin nuen salto. 16-17 urterekin iritsi zitzaidan heavy metala belarrietara, eta hor ekin nion gitarristen trikimailuak irudikatu eta aztertzeari. Ez zegoen egungo erraztasunik, ingurukoenengan edo kontzertuetan ikusia zureganatu, soloak eta eskalak ikasi, irudimena izan, mugitu eta aurrera!

“Rock Radical Vasco” deritzona puri-purian zegoen...

Umea nintzela Benito Lertxundi edo Pantxoa eta Peio entzuten ziren gurean. Geroxeago, Itoiz. 13-14 urte nituela atera zuen La Pollak diskoa, eta berehala murgildu nintzen Hertzainak, RIP edo Erresuma Batuko punk taldeen giroan. Heavy metala entzutean inkontzienteki jolas teknikoagoak eta musika konplikatuagoa egiten hasi arren, Pantxoa eta Peiotik Eskorbitor arteko protesta kantek eragin handia dute nigan abestien letrek idazterako orduan. Musikalki, ez horrenbeste. Gaztetan, indar itzela daukazu, grina asegaizta, ez duzu beldurrik, eta oso kontziente ez izan arren gustuko taldeak imitatzen dituzu. Gitarra eskuetan egiten duzu amets. Nik solfeoa ikasi nuen baina gitarra irakurtzen ez dakit. Horregatik, beti jarraitu izan diot melodiari.

Zer da gitarra zuretzat?

Penatzen nau baina hasieran zeukan magia galdu eta nire ogibidearen parte da orain. Hastapenean, dena zen berezkoa, dena senari jarraitzea, ia konturatu gabe egiten genuen dena. Orain gehiago kalkulatu dut, ez ditut eraginak nabarmen agertu nahi, sortzerako orduan askoz gehiago konplikatzen naiz. Atsedean hartu orduko ordea, gitarra hartzeko beharra sentitzen dut. Baina bai, urteak aurrera doaz, familia dela, lagunak direla, bizimodua aldatzen da, eta gitarra lan tresna bihurtu zait. Dena den, nik gitarrari bizitza zor diot eta ezin dut gitarrarik gabeko etorkizunirik irudikatu. Lehen gitarrarekin erotuago

ibiltzen nintzen, orain nigan errotuago dago. Magia galdu arren nire parte da.

Su Ta Gar-ek ere zure parte behar du. 1987an, institutuko lau lagunek sortua... Telesail bateko argumentua dirudi.

Agian ez gaur bezainbeste, instrumentuak eta *anpliak* eskuratzeko erraztasunik ez zegoelako, baina talde punkyak sortzeko modatxo batek zeharkatu zuen gure belaunaldia. Gure ibilbidea bezain naturala izan zen gure hasiera. Xabi eta Borxa gela batekoak ziren eta Asier eta biok besteakoak. Xabik eta biok bistan elkar ezagutzen genuen arren, euskal udal-

lekuetan harremana sendotu eta gitarrarekin bueltaka hasi ginen. Ordurako, Xabik bazekien Borxak Delirium Tremenseko Txufuren etxean bateria jo zuela eta horri buruz hizketan orduak ematen zituztela. Proposamena luzatu eta baiezkua eman zuen, bateriarik ez zeukan arren. Aldi berean, nik banekien Asierrek txistua jotzen zuela, eta “txistua

jotzen baduzu, baxuarekin moldatuko zara!” bota nion eta ez zuen atzera egin. Hasiera hartan, Xabi eta biok ezer gutxi genekien baina Asier eta Borxa zerotik hasi ziren! Hala, denbora pasatzeko hartu partez talde bat osatzeko hartu genuen lokala, eta zortzi hilabete geroago, kontzertua eman genuen.

Zer da kanta ona zuretzat?

Sinpleagoa edo konplikatuagoa izan, entzuleari heltzen zaiona, zerbait mugitzen diona. Ez dakidana da kantu on bat nola sortzen den. Normalean, gitarra eskutan hartu eta jolasten hasten naiz, maiorretik menorra pasatzen, atzamarra gorago edo beherago jarritz probatzen, eta unean-unean kantak eta senak eskatzen didatena egiten. Oso bitxia da, zenbaitetan parean jotzeko gutxi falta zai-zula iruditu eta ezin diozu jarraipenik eman, eta beste batzuetan jotzen hasi eta ohartzera-ko ateratzen zaizkizu estrofak eta errepika. Askotan azken horiek izaten dira kantarik

NORTASUN AGIRIA

Aitor Gorosabel. 1970eko otsailaren 2an sortu zen Eibarren. Ume-umetan pianoarekin hasi arren, nerabezaroan gitarra astintzen hasi eta 1987an Su Ta Gar taldea sortu zuen institutuko lagun zituen Xabier Bastida, Asier Osoro eta Borxa Arrillagarekin. Euskarazko heavy metalaren aitzindari, disko eta kontzertu andanaren ostean, *Bizirik Gaude* lana argitaratu dute bidea jorratzen segitzeko asmoa argi utziz.





fresko eta indartsuenak. Zorionez edo zori-tzarrez, ordea, ez dago formula magikorik. Garbi dagoena da gure kantuek bilakaera bat izan dutela. Gustuko taldeak imitatzen hasi ginen, erreferentziak argiagoak ziren, baina talde bezala sendotu ahala, gure izaera landu eta besteen eraginetatik ihesi ibili gara. Horrek ez du esan nahi eraginik ez dugunik, gure filtratik pasa eta askoz gordeagoak direla baizik. Ezinbestekoa da identifikagarriak izatea, zure musikak zure zigilua itsatsita eramatea. Jotzen hasi eta jendeak beste talde bat zarela uste badu jai daukazu. Gure kasuan, berdin da zer motatako abestia den, ahotsa sartzetako edo solo bat entzuterako jendeak badaki Su Ta Gar dela. Horrek ematen digu nortasuna, hori da jendearengana heltzeko gure bidea, horregatik gara jendearen parte.

Jabetzen gara zer den 27 urte ohol-tza gainean?

Lapiko espressaren garaian bizi gara, eta gureak plop-plop-plop egindako babarrunak dira. Asko aldatu da mundua, bizimodua, jendearen harremanak izateko era... Azalekoagoa da dena. Bukatu da denda txikietako giza-lotura, haurrak auzoan etxe batetik bestera ibiltzen zirenekoa, beste mundu batean, beste eskema batzuetan gabiltza eta musika ez dago hortik salbu. Gizatasuna eta harreman zuzena desagertu egin dira kontsumoaren eta itxuraren mesedetan. Egun, moldeko kanta onak nazkatu arte jarritik deuseztatzen dituzte, eta bitartean, formulatik at dauden abestiak ez dira entzuten. Salerosketaren oihanak gauza asko faltsutzen ditu. Gu, gure indar eta oztopoe-kin, zirrikituetatik gure bidea egiteaz arduratu gara beti, eta horregatik mantendu gara. Ez dakit jendea irautearen merituz eta esanahiaz jabetzen den. Konturatzen gara Barricada desagertzean gure bizitzako zati bat desagertzen dela? Oraingo talde komertzialen desagertzearekin ez da horrelakorik gertatzen. Jendeak berehalako kontsumo erraz eta



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

azkar horretan mugitu nahi du, baina era berean, arrastoa uzten eta irauten duten heldulekuak behar ditu. Irauten ez duena ezin liteke inoren bizitzako soinu banda izan.

Musikari profesionala izateak oihan horretan defendatu beharra esan nahi du?

Musikari profesionalak izan arren, sistemak eskatzen duen musikarekiko baztertuak sentitzen gara. Oso gutxi dira munduan ezagunak egin diren metal taldeak. Formula komertzial estereotipatuak ez du gogortasun puntu batek gorako ezer onartzen. Era berean, badago heavyzalea den publikoa, baina gauzak zer diren, Euskal Herrian gure jarraitzaileak ez dira batere heavyak, oso jende multzo heterogeneoa da, eta horri esker lortzen dugu hainbeste urteren ostean komertziala ez den musikarekin aretoak betetzea. Horrek ez du esan nahi ordea gure kanta publiko horri egokitzen saiatzen garenik. Estilo ezberdineko disko koloretsu bat egitea ez da erabaki komertziala, gorputzak eskatutako zerbaiz baizik. Sortze prozesua zaildu arren, ez zait gustatzen disko homogeneoak egitea, nahia-go dut alor eta fazeta ezberdinak landu. Intentsitate gora-beheretan ibiltzea ez da komertzialtasunari men egitea. Jakina nik ere heldu nahi dudala jendearengana, nik ere saldu nahi ditudala diskoak, baina nire buruarekin zintzoa izanez.

Diskoak saltzea lan zaila bihurtu da, agidanaz.

Azkenean gupil bat da dena. Nire ustez, uni-bertsala izaki kulturak doan behar lukeela dioten mezuak oso *guaiak* dira, populistak, belarri oso gozo sartzen direnak, baina niri ez zaizkit oso errealak iruditzen. Lan artistikoa askoz lagunduago eta babestuago egon behar litzateke: jotzeko lekuak eskura izan, grabatzeko erraztasunak eman, horretara dedikatzeko baldintzak sortu... Irtenbidea ez da beste lan bat edukita musikan orduak sartu eta horren emaitza jendearentzat doan izatea. Hori faltsua da, ezer ez da debalde. Zuk dirurik galdutako ez arren Movistar, Euskaltel eta abarrek irabazten dute. Gero betiko kontraesanak datoz. Futbolera joateko dirua badugu eta CD bat erosteko ez. Disko edo pelikula bat egiteak gastu handia dakar baina klik bakarrean doan jaitsi liteke, eta bitartean, 6 euroekin lau *txapata* ogi baino ezin litezke erosi.

Musikarentzat beharrezkoa da industria?

Nire ustez egokiena da. Horrela, artistak arlo artistikora gorputz eta arima dedikatzear gain, funtzionatzen duten estudio gehiago egongo lirateke, diskoetxe eta banatzaileetan jendea lanean, dendak zabalik... Gaur egun, musikariaren etxetik internetera zuzenean




Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

ARANA
Faustinarekin munduratz. Eneko Etxebarrieta
Otsailak 26, 18:00; 4-8 urte

ARIZNABARRA
Ipuinetako animaliak. Alain la Reina
Otsailak 22, 11:30; 5-10 urte
Zer daramagu emakumeok poltsoan?
Inés Bengoa
Martxoak 6, 19:00. Gazte eta helduak

HEGOALDE
Filomena Musugorri, errege. Maite Franko
Martxoak 5, 18:00, 4-7 urte

IBAIONDO
Ipuin lotsatiak. Odei Arregi
Otsailak 26, 18:00, 3-7 urte

JUDIMENDI
Desagertzeaz dauden animalien mapamundia
Itzalen eskutik
Otsailak 11, 18:00; +7 urte

LAKUA
Nere etxea. Virginia Imaz
Otsailak 18, 18:00, 3-5 urte

PILAR
Bigarren printzesa. Virginia Imaz
Otsailak 27, 18:00, 3-8 urte
Entzun eta sentitu. Pello Añorga
Martxoak 5, 18:30; 3-7 urte
Langileentzako ikastaroa. Arlo horietan oso euskara gutxi edo ezer ez dakiten lagunak ezagun badituzu, eman ikastaro honen berri.

BELARRIEN GOXOKO
• SINKRO. Musika dantza eta live electronics
Martxoak 5, Artium, 19:30
• AZALETIK SUSTRAIETARA
Edorta Jimenez hitzaldia eta Doro Zobaranen erakustaldia
Martxoak 19, Artium, 19:30

IGANDEAK JAI, familia giroan euskaraz
• AZALETIK SUSTRAIETARA
Otsailak 23, Adurtza ikastola
17.00etan Mikel Ayerbe eta Eider Eibar (emanaldia)
18.00etan lantegia

PRINCIPAL antzokia
• Zazpi aldiz elur
Ttanttaka
Otsailak 12, 13. 20:30
• Aladino
Familiarentzako antzerkia
Gorakada
Martxoak 9, 18:00
• Jaingo txiki eta jostalari hura
Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin,
Bingen Mendizabal
Martxoak 13, 20:30

Maite duzun hura, euskarazi



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udaia

AZKEN HITZA

Jo Ta Ke

"Gure lehen bi kantuetako bat da *Jo Ta Ke*. Gogoan dut kantua osatu eta lehen entseguan, bateria gainera igota, ileak puntan, 20 aldiz jo gurela bere "je je je" mitiko eta guzti. Geroztik abesti mordoak konposatu dugu, ederrak eta esanguratsuak batzuk, baina hasiera hasierako *Jo Ta Ke* hura da gure kanta ezagunena eta ikurra".

igaro liteke, eta kostuak merkatu arren, ez zait gustatzen diskoetxeak ixten, banatzaileak eta estudioak larri, eta dendak desagertzen ikustea. Jendeak disko bat erosteko dendarik ez daukan puntura heldu gara! Baina, diodanarekin kontraesanean, gu ere autoekoizpenera pasa ginen eta horrek desgaste izugarria dakar. Jakina, gero pastel osoa zuretzako da, baina oso txikia da dagoeneko. Nahiago genuke pastel handiagoa diskoetxeekin banatzea, musikaren balorea bermatzen dela esan nahiko luke.

Noiz esango da artistarena ogibide serioa dela?

Ez dakit. Edonork ezin du musika ogibide bihurtu. Tailerrean hasten den edonork ogibidez hasten da eta, gutxiago edo gehiago, ordaindu egiten zaio. Musikan ez, musikan hastapenetan inork ez du zugatik ordaintzen. Hala, artista batzuek diru mugimendua sortzen dute eta beste batzuek ez. Hor, bekaitz, inbidia eta deslegitimazioak sortzen dira. Esaterako, nire ustez interneten kantak doan eskegitzen dituzten gehien-gehienak oso gutxi saltzen dutenak dira. Jende horrek beste lan bat dauka, musika aisialditzat du, eta musikatik bizi litekeena kritikatzeko hasten da. Zergatik eskatzen zaio doan lan egitea musika talde bati eta iturgin bati ez? Doan lan egi-

teko prest dagoen iturgin bakar bat ez dagoelako, baina doan jotzeko prest dauden taldeak ehunka. Hortik sortzen dira "diruagatik soilik jotzen dutel!" bezalako kritika iraingarriak. Zilegi iruditzen zait debalde jotzea, baina dirua eskatzea ere bai. Gu ez ginen aberaste-ko hasi, ondo pasatzeko asmoz baizik, baina jendea erruz biltzen hasi ginen, eta konturatzeko, guk egiten genuenetik inguruko guztiek dirua ateratzen zuten, guk izan ezik. Guk sortzen genuena guk kudeatzeko egin genuen profesionaltasunaren apustua. Badakit Euskal Herrian musika eta elkartasuna tradizioz oso lotuta daudela, baina doan jotzeko deitzen digutenero sekulako korapiloan lotzen gaituzte. Euskal Herria oso herri txikia da eta nonbait jotzeak bolada baterako inguru hori erretzea dakar.

Nolako korapiloa dakar zentsurak?

Hasieran itzela, baina denborarekin, errepresioa jasaten ari diren euskal herritar gehienak bezala normaltasun baten barruan bizi izan dugu. Lehen kontzertua izorratzen dizutenean, nahi eta ezin izugarria pilatzen zaizu, baina ohitu egiten zara. Su-etenaren aurretik kezka eta beldurrez ere egon ginen, edonork edozein aitzakiapean sartzen zutelako kartzelara, baina oro har, inpotentzia dakar kanpoan ezin jotzeak eta amorrua Euskal Herrian jotzeko hainbeste traba gainditu behar izateak. Ez dakit horren aurrean gure estrategia izan zen onena. Ez genion aurre egin, ez genuen sutara egurririk bota nahi izan, ez genuen telebistan gure egoera salatu, Madrilen jotzea ezinezkoa zitzaigula ikusita ez ginen itsutzeraino ahalegindu... Garbi dagoena da kalte itzela egin digula. Orain hamabi-hamahiru urte festibalean muturra sartzea lortu genuen, baina goizetik gauera dena eten zen, eta oraindik asko kostatzen zaigu festibalean jotzea. ■



CuadraBus
www.cuadribus.com
© 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

ogiaren egia
Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin
Galparsoro OKINDEGIA
Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria
Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074